



2020-2021 IKASTURTEA





Usurbilen, 2020ko uztailaren 10ean

Familia agurgarria!

Irailean, 2020-2021 ikasturte berriari hasiera emango diogu, eta garrantzitsuak izango diren zenbait ohar helarazi nahi dizuet.

Aurten COVID 19 uzten ari den arrastoak eragina izan du txosten hau osatzerakoan, eta aurkituko duzuen informazioak, egoera "normal" bateko antolaketari erantzuten dio: egutegia, ordutegiak, testu-liburuen erosketa eta hainbat zerbitzuren antolaketa, hain zuzen ere.

Ziurrenik, aldaketak etorriko dira udan zehar, eta horien baitan landuko dugun antolaketa nahiz informazio berria helarazten joango gatzaizkizue.

Bitartean, jaso ezazue nire agurrik zintzoena!

Ondo segi eta gozatu udaldiaz!



COVID19. HAINBAT AIPAMEN

- **Covid 19aren eraginez**, ikasturtearen hirugarren hiru hilabetekoan eta ondorengo antolaketan, ezinbesteko aldaketak egin behar izan ditugu ohiko funtzionamenduan eta antolaketa-gai ezberdinetan.
- **Egoerak** eragindako **ziurgabetasuna eta zalantzakor tasuna** zaitzen ari da erabaki finkoak hartzeko aukerak. Halere, horretan ari gara apirilaren bukaeratik, bilerak eginez beste ikastolekin, balizko antolaketa bati heltzeko.
- **Orain arte** egindako lanketaren baitan, **3 eskenatoki aurreikusi** ditugu:
 1. **Ohiko jarduna**
 2. **Itxialdi egoera:** urrutiko ikas-irakaskuntza
 3. **Aurrez aurre mugatua:**
 - 3.1. **Mugak eta baldintzak:** etapetako ezaugarriak eta beharrak lehenetsita.
 - 3.2. **Ikuspegi praktikoa:** antolaketa- aukerak ondo aztertuta.
- **Zuzendaritza Taldean eskenatoki horiek zehazten eta definitzen** ari gara eta **abuztuaren bigarren hamabostaldian**, uneko egoeraren arabera, hartuko ditugu beharrezko erabakiak. Era berean, **antolaketa itxi bezain laster, erabakien komunikazioa helaraziko** dizuegu, zuen etxeko antolaketari ekin ahal izateko.

| | 2020/2021 IKASTURTEAREN SARRERA EGUNAK | ORDUTEGIA |
|-------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|
| HH/LH | HASIERA: Irailaren 7an | 9:00-12:30 |
| | Irailaren 7tik 25era (biak barne) | 9:00-12:30 |
| | Urriaren 1etik maiatzaren 31ra (biak barne) | 9:00-12:30 eta 14:30-16:30 |
| | Ekainaren 1etik 18ra | 9:00-12:30 |
| DBH | HASIERA: Irailaren 4ean (Aurkezpena) | 11:00 |
| | Irailaren 7tik 25era (biak barne) | 8:25-14:30 |
| | Irailaren 28tik maiatzaren 31ra (biak barne) | 8:25-12:30 / 14:30-16:30 |
| | Ekainaren 1etik 11ra (biak barne) | 8:25-14:30 |
| | Ekainaren 14tik 18ra (biak barne) | 8:25-12:30 |
| | Ikasturte osoan, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN LANALDI JARRAITUA | 8:25-14:30 |
| | OHARRAK: DBH_KO IKASLEAK: | |
| | <ul style="list-style-type: none"> • Irailaren 4ean DBH_KO ikasleekin egiten den aurkezpena goizeko 11:00etatik hasita egingo da. Ikastolara bertaratzea norberaren gain geratuko da. Egun horretan autobus zerbitzurik ez da egongo. | |



| OPORRAK ETA JAI- EGUNAK | | | |
|-------------------------|------------------------------------------------------------|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HH/LH/ DBH | Oporrak | Negukoak | <ul style="list-style-type: none"> Abenduaren 18a eguerditik urtarrilaren 6ra (biak barne). 7an klaseak hasi. |
| | | Udaberrikoak | <ul style="list-style-type: none"> Martxoaren 26 eguerditik apirilaren 9ra arte (biak barne). Apirilaren 12an klaseak hasi. |
| | | Udakoak | <ul style="list-style-type: none"> Ekainaren 18 eguerditik aurrera. |
| | Jai egunak | Urriaren 12 | <ul style="list-style-type: none"> Pilare ama birjina |
| | | Abenduaren 7 eta 8 | <ul style="list-style-type: none"> Zubia eta Sortzez Garbia |
| | | Urtarrilaren 20 | <ul style="list-style-type: none"> Donostia Eguna |
| | | Otsailaren 15 eta 16 | <ul style="list-style-type: none"> Inauteriak |
| | | Martxoaren 19 | <ul style="list-style-type: none"> San Jose |
| | Hiruhilekoen azken egunean saioak eguerdian amaituko dira. | | |



| EGUTEGIA HH-LH | | | | | | | 2020-2021 | | | | | | | |
|------------------|----|----|----|----|----|----|----------------|----|----|----|----|----|----|----|
| IRAILA | | | | | | | URRIA | | | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | | 1 | 2 | 3 | 4 | | | |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | |
| 28 | 29 | 30 | | | | | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |
| AZAROA | | | | | | | ABENDUA | | | | | | | |
| | | | | | | 1 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 14 | 15 | 16 | 17 | / | 19 | 20 | |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 28 | 29 | 30 | 31 | | | | |
| 30 | | | | | | | | | | | | | | |
| URTARRILA | | | | | | | OTSAILA | | | | | | | |
| | | | | 1 | 2 | 3 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | | | | | | | |
| MARTXOA | | | | | | | APIRILA | | | | | | | |
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | | | | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | |
| 22 | 23 | 24 | 25 | / | 27 | 28 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | |
| 29 | 30 | 31 | | | | | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | | |
| MAIATZA | | | | | | | EKAINA | | | | | | | |
| | | | | | 1 | 2 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 14 | 15 | 16 | 17 | / | 19 | 20 | |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 28 | 29 | 30 | | | | | |
| 31 | | | | | | | | | | | | | | |



TESTU- LIBURUEN EROSKETA



- 2010- 2011 ikasturtean, Hitz Aho guraso elkarteak **LIBURUTRUK** izeneko egitasmoa abiatu zuen. Honen **helburua** da: **liburuak berrerabiltzeko sisteman** parte hartu nahi duten familiei, horretarako aukera ematea.
- **2019-2020an LH4. mailan egon diren ikasleek** parte hartu ahal izango dute.
- **Egitasmoan parte hartu ez** duten familiek liburuen erosketara beren ohiko moduan egin ahalko dute.

OHARRA:

- **LIBURUTRUK** egitasmoan parte hartzen ez duten familiek, hala nahi izanez gero eta ohikoa izan denez, liburuak salgai izango dituzte herriko LAUROK eta LIZARDI liburutegietan.





IKASTALDEEN KOKAPENA ESPAZIO EZBERDINETAN

HE 0-3

HAUR ESKOLA ERAIKINA: UGARTE KALEA 9, KALEZAR

| | |
|------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Beheko solairuan | <ul style="list-style-type: none"> Jangela Psikomotrizitate gela |
| Kanpo espazioa | <ul style="list-style-type: none"> Sarrerako patioa Belardia |
| 1. Solairuan | <ul style="list-style-type: none"> 0-1 adineko gela Sehaska gela 1-2 adineko 2 gela |
| Goiko solairuan | <ul style="list-style-type: none"> 2-3 adineko talde bakarra 2 gela erabiliz. Esperimentazio- gela Bulegoa (idazkaritza) Biltegia Garbiketa gela |



ALPERRO- BURU 5, HH_ ERAIKIN

BERRIA_AGERI ALDE ERAIKINA

HH 3-4-5

| | |
|------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Atarian | <ul style="list-style-type: none"> HH3ko gela HH4ko gela Jolaslekua |
| Beheko solairuan | <ul style="list-style-type: none"> Jangela |
| 1. solairuan | <ul style="list-style-type: none"> HH5eko gela, Psikomotrizitate gela Musika gela. |


LH 1-2-3-4-5-6

ALPERRO- BURU 5, LH_ AGERI- ALDE ERAIKINA

| | |
|--------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Atarian | <ul style="list-style-type: none"> Goizeko Zaintza gela |
| 1. solairuan | <ul style="list-style-type: none"> Plastika gela Musika gela Laborategia |
| 2. solairuan | <ul style="list-style-type: none"> LH 1-2-3 |
| 3. solairuan | <ul style="list-style-type: none"> LH 4-5-6 Orientazio gela |



GERNIKA IBILBIDEA 11, DBH ERAIKINA



| MAILA | TUTOREAK | KOKAPENA |
|--------|------------------------------|--------------------------------------------------------------------|
| DBH 1A | Yolanda Inziarte | Ikas-geletako kokapena iraileko antolaketaren baitan zehaztuko da. |
| DBH 1B | Jon Larrañaga | |
| DBH 1D | Garbiñe Zaldua | |
| DBH 2A | Mertxe Loiola | |
| DBH 2B | Begoña Eizagirre | |
| | Ander Izeta (partekatua) | |
| DBH 3A | Eñaut Lasarte | |
| DBH 3B | Amaia Añorga | |
| | Leire Larrañaga (partekatua) | |
| DBH 4A | Unai Lataillade | |
| DBH 4B | Olatz Martin | |
| | Miren Loiti (partekatua) | |



TUTORETZAK

| HEZKUNTZA ETAPAK | ADINA/MAILA | TUTOREAK ETA ARLOETAKO IRAKASLEAK | |
|----------------------------------|------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HAUR HEZKUNTZA (0-6 urte) | 0-3 | HAUR ESKOLAKO IRAKASLE ETA HEZITZAILE TALDEA | |
| | | 0-1 | Silvia URIGOITIA Zehaztu gabeko hezitzaile laguntzailea (azaro, abendu, edo urtarriletik aurrera, egokitzapenak hastean) |
| | | 1-2 (2 gela) | Ainhoa ARANZABAL Maider OLLOKIEGI Lis GURRUTXAGA Nerea LASA |
| | | 2-3 | Josune TAPIA Edurne URDANPILLETA (irakasle laguntzailea) Arratsaldeak hezitzaile laguntzaile batekin |
| | HH3 (3 urte) | Oihana AIERTZA Eider TAPIA Eneritz AGIRRE (irakasle laguntzailea) | |
| | HH4 (4 urte) | Ainhoa SALSAMENDI Mikele GURRUTXAGA (Haizea Etxezarretaren ordeko) | |
| | HH5 (5 urte) | Alazne BEGIRISTAIN Olatz ANSA Nekane ALDUNTZIN (irakasle laguntzailea) | |
| | Musika | Miren Jaione ESKUDERO | |
| | Ingelesa | Ainara MENDIZABAL Naiara AGIRREZABALAGA | |
| | LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte) | LH 1. | Eli EIZAGIRRE Nekane GARMENDIA |
| | | LH 2. | Ainhoa AIZPURUA Izaro ASTEASUINZARRA |
| LH 3. | | Ane de MIGUEL (Ursula Zubimendiren ordeko) Jaione REKONDO | |
| LH 4. | | Inaxio UNANUE Ibon AZKONBIETA Nekane GUERRERO | |
| LH 5. | | Larraitz OÑATIBIA Ekaitz GARBIZU | |
| LH 6. | | Ana SAGARDIA Ainhoa ITURZAETA | |
| Ingelesa | | Ainhoa ITURTZAETA Naiara AGIRREZABALAGA Aloña MENDIZABAL Ainara MENDIZABAL | |
| Musika | | Miren Jaione ESKUDERO | |
| Gorputz Hezkuntza | | Ekaitz GARBIZU Elhuñar URDANPILLETA Iñaxio UNANUE | |
| Arte Hezkuntza LH 4-5-6 | | Naiara AGIRREZABAL | |
| IKT | | Jose Ramon OIARBIDE | |



| LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte) | Orientazio departamendua | Eli GOIKOETXEA Maddi GALBETE Arantza Cotado (Ane Mendizabalen ordezko) |
|-----------------------------------------------|--------------------------|------------------------------------------------------------------------------|
| DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 URTE) | DBH 1. | Yolanda INZIARTE Jon LARRAÑAGA Garbiñe ZALDUA |
| | DBH 2. | Mertxe LOIOLA Begoña EIZAGIRRE Ander IZETA (tutoretza partekatua) |
| | DBH 3. | Eñaut LASARTE Amaia AÑORGA Leire Larrañaga (tutoretza partekatua) |
| | DBH 4. | Olatz MARTIN Unai LATAILLADE Miren LOITI (tutoretza partekatua) |





ANTOLAKETA PEDAGOGIKOARI BURUZKO OHARRAK

HAUR ESKOLAKO KUDEAKETA UDARREGI IKASTOLAREN BAITAN

- **Dakizuenez, 2008-2009** ikasturteaz geroztik, Usurbilen hasiera eman ziztaion ibilbide berri bati: Udarregi Ikastola Udalak 0-3 Hezkuntza Proiektua garatzeko atera zuen esleipenera aurkeztuz, ordura arte Usurbilen lanean jardundako Haur Eskola, Ikastolaren kudeaketaren baitan geratuz.
- **2008ko urtarriletik** gauzatutako prozesuan zehar 3 aldean arteko bilerak burutu ziren, Udal Hezkuntza Mahaia elkartu zen eta bai Haur Eskolak eta baita Ikastolak ere beren Batzarrak egin zituzten erabakia hartzeko.
- **Udarregin 2008ko ekainean** egin zen Ezohiko Batzarrean argi berdea eman ziztaion esleipenera aurkezteari eta irailetik aurrera ordura arte Udarregin kokatuak zeuden HH2ko gelak Kale zaharrera pasa ziren, Haur Eskolak zerabilen eraikinera.
- **Haur Eskolaren 0-3 hezkuntza tramua eta Udarregiren HH2ko gela eskaintzaren bateratzea**, uztartze sakonago baterako abiapuntua izan zedin nahi genuela aitortu genuen orduko negoziaketetan eta asmo horretan baieztatzen gara gaur egun ere.
- **Bere garaian hartutako erabakiak** Ikastolari aukera eman dio Usurbilen bertan, 0-16 bitarteko adinetako ikasleei eta familiei Hezkuntza eskaintza zabaltzeko eta garatzeko.
- **Antolaketa** aldetik, garaian garaiko beharren eraginez, birmoldaketa ezberdinak gauzatzen aritu gara orain arteko ibilbidean, eta ate joka dugu Esleipenaren amaiera, zeinaren ikasturte bateko luzapenez, 2020ko abendurako erabakia hartu behar duen ikastolak.

HEZKUNTZA SAILA: GELA-PLANIFIKAZIOA ETA ITUNAK 2020-2021

Jarraian 2019-2020 ikasturterako Udarregi Ikastolak eskatutako gela-itunak eta Hezkuntza Sailak erantzuna:

| | UDARREGIK eskaturiko gela kopurua | HEZKUNTZA SAILAK onarturiko gela kopurua |
|-------------------------|-----------------------------------|------------------------------------------|
| HH | 6 | 6 |
| LH | 14 | 13 |
| Heziketa Berezia LH *** | 2 | ? |
| DBH 1.ZIKLOA | 5 | 5 |
| DBH 2. ZIKLOA | 4 | 4 |
| Heziketa Berezia DBH | 1 | 1 |

OHARRA:

*** **Heziketa Bereziko gelei** dagokienean, 2020-2021 ikasturteko premia berezietako gela-kopuruen onarpen-ebazpena oraindik ateratzeko dago, arrazoi honengatik oraindik ezin dugu esan aurreikusitako kopurua onartu zaigun.



2020-2021. LANGILERIAREN ORGANIGRAMA:

* **2019-2020an etapetako antolaketa** gauzatzerakoan, ohikoa den moduan, ikastolan indarrean dauden kontratu motak, baldintzak, eta lanaren ezaugarriak kontuan hartu ditugu:

| | |
|-----|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| HH | <ul style="list-style-type: none"> HH4: Mikele Gurrutxagak Haizea Etxezarretaren ordezkotza beteko du. |
| LH | <ul style="list-style-type: none"> LH3A: Ane de Miguelek, Ursula Zubimendiren ordezkotza beteko du. |
| DBH | <ul style="list-style-type: none"> Pedagogia Terapeufikoko irakaslea: Arantza Cotado izango da, etapa honetan bere lanaldiaren zati bat betez. Matematika DBH1ean eta DBH4an %60 lanaldia betetzeko, irakasle berri bat kontratatzeko elkarrizketak burutzen ari gara. |

DBH: EKAINEN ARLOETAKO ERREKUPERAKETAK

* **Ikasturte bukaerako berreskuratze azterketetarako** egiten den antolaketaren berri, 2020-2021 ikasturtearen hirugarren hiru hilabeteen emango zaizue.

* **Antolaketa honetarako kontuan hartuko** dira aurtengo prozesuan identifikatutako hobekuntza arloak eta hauexek ezartzeko aurreikusitako prozedurak indarrean jarriko dira.

ZERBITZUAK

GOIZEKO ZAINZA (08:00etatik 09:00etara)

- **Zerbitzua** aurreko ikasturtean antolatutako eran jarraituko da eskaintzen 2020-2021an ere.
- **Lekua eta ordua:** Ageri Aldeko eraikina, goizeko 08:00etatik 09:00etara.
- Hiru **begirale** egongo dira.
- **2020-2021eko salneurria 17 €** hileko izango da.



ARRATSALDEKO ZAINZA (14:30etatik 16:30etara)

- **Irailean zehar** klaseak goizetik direnean. 2021eko ekainean eskainiko da ere bai, gutxieneko taldea sortu ezker.
- **Lekua eta ordua:** Ageri Aldeko eraikina, irailak 7tik 25era arratsaldeko 14:30etik 16:30era.



- **Bi begirale** egongo dira.
- **Zerbitzuaren salneurria** oraindik zehazteko dago. **2019-2020an 35 €** hileko izan da.

JANGELA

- **2020-2021eko kontratua, AIBAK Enpresarekin** mantendu da.
- **Bertan sukaldatutako menuak** zerbitzatzeko jarraituko dugu.
- **Bi txandatan** jango dute bazkaldarrek.
- **Hasiera eguna:** irailaren 7a.
- **Interesatuok abuztuaren azken astean idazkaritzara hots egin** ezazue, izen-deiturak emateko eta baiesteko. **Gogoratu, urtero eman behar** dela izena, nahiz eta aurreko ikasturtean ere jangelako erabiltzaile izan.
- **2020-2021ean menu bakoitzeko** prezioa **7,15 €** izango da, aurreko ikasturtean bezala.
- **Urritik maiatzera bitartean prezio desberdinak** egongo dira, ikasle bakoitzaren beharren arabera. **Behin tarifa bat aukeratu ezker**, ezin izango da kurtsoan zehar aldaketarik eskatu.
- **Egunero finko joango den ikasleari**, jangelan geratu ezin duen egunagatik deskontatu ahal izango zaio, baldin eta bezperan 13:00 aurretik oharra idatziz eta sinatuta idazkaritzara ekartzen badu edo e-maila bidaltzen badu: usurbil@ikastola.eus helbidera. **Deskontua ez da aplikatuko irteeran kasuan**, hileko prezioan (H4 eta H5) kontuan hartuta baitago lehendik.
- **Aldian behin** jangelan bazkaldu nahi izan ezker, bezperan **13:00** baino lehen idazkaritzara deituz egin daiteke.
- **Jakinarazten** dizuegu, 2005-2006 ikasturtean Artezkaritza Kontseiluan erabaki zela, ikasturte osorako jangela zerbitzuan izena emanda dauden erabiltzaileak baja eman ezker, zerbitzuaren kostu errealagatik likidazioa egingo zaiola.

GARRAIOA

- **Datorren ikasturterako** autobus zerbitzuaren **kostua 50,00 €** izango da.
- **Gure helburua**, garraio-zerbitzua erabiltzeko eskaera luzatu duten guztioi zerbitzua ahalbidetzea izaten da.
- **Ikasturtean zehar** autobus zerbitzuaren erabilera egokia bermatu ahal izateko, garraioaren erabileraz bidali zitzaizuen galdera-orrian baiezkota eman zenuten erabiltzaileei eskainiko zaizue zerbitzua.
- **Izena eman ez zenutenek** idazkaritzarekin harremanetan jarri eta plaza librean arabera kudeatuko da.



2020/2021 ikasturterako ordutegiak:

- **DBH ikasleen ordutegia**

| GELTOKIAK | GOIZEZ | ARRATSALDEZ | |
|-------------|--------|-------------|-------|
| | | MIKROBUSA | BUSA |
| Aginaga | 7:45 | 14:00 | - |
| Txoko-alde | - | - | - |
| Txikiardi | - | 14:02 | - |
| Lasarte | - | - | 14:00 |
| Zubieta | 8:00 | - | 14:02 |
| San Esteban | 8:10 | 14:10 | - |
| Santuenea | 8:15 | - | 14:10 |
| Kalezar | - | 14:15 | - |
| Bizkarre | 8:20 | - | 14:12 |

- **HH eta LHko ikasleen ordutegia**

| GELTOKIAK | GOIZEZ | | ARRATSALDEZ | |
|----------------------|-----------|------|-------------|-------|
| | MIKROBUSA | BUSA | MIKROBUSA | BUSA |
| Aginaga | 8:40 | - | 14:00 | - |
| Galardi | 8:42 | - | - | - |
| Lasarte (hipodromoa) | - | - | - | 13:55 |
| Zubieta | - | 8:35 | - | 14:02 |
| S. Esteban | - | - | 14:05 | - |
| Santuenea | - | 8:43 | - | 14:10 |
| Kalezar | 8:45 | - | 14:15 | - |
| Ikastola | 8:50 | 8:50 | 14:20 | 14:20 |

- **12:30etako ibilbideak** honakoak izango dira:

- ☞ **Autobusa** → Lasarte – Zubieta – Santuenea
- ☞ **Mikrobusa** → Aginaga – Txoko Alde – San Esteban - Kalezar

- **16:30etako zerbitzua** autobus bakar batean egingo da.

- ☞ **Astelehen, asteazken eta ostiraletan:** Zubieta – Santuenea – San Esteban – Aginaga – Galardi
- ☞ **Astearte eta ostegunetan:** Aginaga – Galardi – Zubieta – Santuenea - San Esteban



Ikastolara noa autobusez pozik eta alai!

Hona **autobus erabiltzaileen araudia**:

1. **Geltokian** behar den ordurako egongo naiz, espaloian edo galtzadatik kanpo. Geltokira iristean ere arau berdina errespetatuko dut.
2. **Garraioa gelditu arte** eserita mantenduko naiz; altxatzean, nire gauzak hartuko ditut.
3. **Autobusean eserita** joango naiz eta segurtasun uhala jarrita; zaintzaileei kasu egin eta ikaskideak eta instalazioak errespetatuko ditut.
4. **Garraitzerakoan ez** dut ezer jango edota edango, autobusa zaintzen eta txukun uzten saiatuko naiz.
5. **Garraiara sartu eta irteerakoan** poliki, lasai, txandak errespetatuz eta bultzatu gabe ibiliko naiz.
6. **Gidaria** lasai utziko dut. Eserita egin daitezkeen jolasak egingo ditut edota hitz egiten jardungo naiz.
7. **Ikastolan autobusa galduko banu**, autobus zaintzailea nire familiarekin telefonoz harremanetan jarriko da nola jasoko nauten argitzeko.
8. Egunen batean **etxera bueltatzeko autobusa erabili** beharko ez banu, nire familiak autobus zaintzaileari abisua pasako dio.



Jarrera egokia ez bada, eta gurasoek hiru abisu jasotzen badituzte, Artekari-tza bilduko da eta autobusetik kanporaketa proposa dezake.

Txostenaren informazioa lagungarri izango zaizuelakoan,
Besterik gabe, jaso ezazue nire agurrik zintzoena, eta opor onak izan!



Mariaje Imaz Urrutikoetxea

UDARREGI IKASTOLAKO Zuzendaria



Gaztelera irakurri nahi baduzu,
Para leer en castellano,





UDARREGI IKASTOLA, I.K.E.
Gernika ibilbidea 11 - Usurbil (20.170)
Tel: 943 361 216
www.udarregi.eus usurbil@ikastola.eus

HAUR ESKOLA
Kale-Zahar auzoa, Ugarte kalea, 9 - Usurbil (20.170)
Tel: 943 374 061
www.udarregi.eus haureskola@udarregi.eus

